

IÑIGO URROZ DE HEREDIA GERNIKA ENSAYO SARIETAN AURENA ETA
SABINO ALONSO IPUJETAN

Gernika ensayo eta ipui sarietara aurkeztatu ziran euskerazko lanak ikusteko izandatu zan juraduak erabaki du:

Urrengo sari auek ematea ensayoetan:

1.º Iñigo Urroz de Heredia-ri «Euskaldun ospetsu batzuen gizatasuna» lanagatik

2n. Aita Gaizka Barandiaran S. J.-ri «Zugaitz gurgarriek Ixrael'en»-gatik.

Ipujetan:

1.º Sabino Alonso Ariño-ri «Txomin'en nekaldiak» ipuiagatik.

2n. Jose M.º Etxaburu-ri «Maitasunaren arantzak»-gatik.

3n. Manuel Ziarsolo «Abeletxe»-ri. «Aretxa, ezkurraren semea»-gatik

Juradua osatu dute Euskaltzaindiko Antonio M.º Labayen, Agustin Zubikarai eta Xabier Gereño Jaunak.

Sariak Gernika-ko Ayuntamentuaren etxean eman dira 1966 urteko urriaren 31-an.

DOMINIQUE PEILLEN 1966 URTEKO DOMINGO AGIRRE NOVELA
SARIAREN IRABAZLE

Domingo Agirre novela saria Bizkaiko Ahorro Kaxak sortu zuen Euskaltzaindiarekin bat egiñik eta aurtan Dominique Peillen-i eman zaio «Itzal herrian» derfizan novelagatik.

Juradua osatu dute Eusebio Erkiaga, Antonio Arrue eta Rikardo Arregi jaunak. Dominique Peillen Parisen jaioa da guraso zuberotarrengandik.

Oso ezaguna da euskal letretan eta lehendik ospea duena. Beste novela sari bat ere irabazia du.

IBON SARASOLA 1966 URTEKO «LIZARDI» POESIA SARIAREN IRABAZLE

«Ez bat, ez bi, ez...» lanagatik irabazi zuen Ibon Sarasola-k 1966 urteko «Lizardi» poesia saria.

Juraduko egin zuten G. Aresti, Bordari eta N. Etxaniz-ek.

INOZENZIO OLEA 1966 URTEKO «XENPELAR» SARIAREN IRABAZLE

Inozenzio Olea-k irabazi zuen 1966 urteko «Xenpelar» saria «Nere jaiotetxea» bertso sortagatik.

Bigarren, irugarren eta laugarren sariak Matxain, Lete eta Salaberria-ren artean partitu ziran, danak berdin.

Juraduko A. Arrue, Bordari, A. Irigoyen, A. Valverde, A. Zatarain eta Aita A. Zavalá izan ziran.